

IRAKASKUNTZA-GIDA

2020/21

Ikastegia

231 - Psikologia Fakultatea

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25048 - Arreta, Pertzepzioa eta Motibazioa

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai honek arreta, pertzepzioa eta motibazioaren psikologiako ikerketa lerroak eta aplikatuak ezagutara ematen saiatuko da, ala nola, prozesu hauek jorratu dituzten teoria nagusienak eta ikerketa metodo garrantzitsuenak. Ikaslea prozesu hauei buruzko oinarriko ikuspuntu bat jasoko du, jakintza-arlo anitzeko ikuspuntu batez gain.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

- G1 Arreta, pertzepzioa eta motibazioaren fenomenoak eta hauei atxikitutako eredu teorikoak ezagutzea.
- G2 Prozesu psikologiko hauek neurtzeko erabiltzen diren instrumentu nagusienak ezagutzea.
- G3 Jasotako ezagutzak eguneroko fenomeno eta egoerei aplikatzea, kasuen eta problemen azterketa eta idatzizko informeen elaborazioaren bitartez.
- G4 Kritikoki erreflexionatzeko eta jasotako edukiak modu autonomoan kudeatzeko gaitasuna izan, norbere ideiak argumentatzeko gaitasuna izanik.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

I.go GAI BLOKEA: PSIKOLOGIA KOGNITIBOA

1.GAIA: SARRERA

- 1. Psikologia kognitiboa eta zientzia kognitiboa.
 - 2. Psikologia kognitiboa eta metodo zientifikoa.
 - 3. Psikologia kognitiboa: prozesuak.
 - 4. Pertzepzio, arreta eta motibazioari sarrera.
- G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

II.go GAI BLOKEA: PERTZEPZIOA

1.GAIA: PERTZEPZIOA

- 1. Prozesu pertzepzioa: sentsaziotik pertzepzioa.
 - 2. Aspektu fisiologikoak: errezeptoretik garun azalera.
- G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

2.GAIA: PSIKOFISIKA

- 1. Psikofisika klasikoa:
 - 1.1. Zer da Psikofisika
 - 1.2. Atalase absolutua
 - 1.3. Metodo psikofisiko klasikoak
 - 1.4. Atalase diferentziala eta honen neurketa
 - 1.5. Atalasea eta sentiberatasunaren arteko erlazioa
 - 1.6. Atalaseen teoriaren kritikak
 - 2. Seinaleen Detekzioen Teoria
 - 2.1 Oinarri teorikoak
 - 2.1.1 Sentiberatasuna (d₀) eta erantzun irizpidearen (b) arteko ezberdintasuna
- G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

3.GAIA: MODALITATE PERTZEPTIBOAK

- 1. Ikusmenezko pertzepzioa:
 - 1.1. Formaren pertzepzioa
 - 1.2. Kolorearen pertzepzioa
 - 1.3. Ikusmenezko errekonozimendua
 - 2. Entzumenezko pertzepzioa, larruazaleko zentzumenak, zapora eta usaimen sistemak.
- G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

III.go GAI BLOKEA: ARRETA

1.GAIA: ARRETA

- 1. Arretaren kontzeptuari sarrera. Arreta eta sistema kognitiboa
- 2 Arretaren motak: dimentsioak
 - 2.1. Orientazio erreflexua eta bilakaera

- 2.2. Hautazko dimentsioa
 - 2.3. Arreta jarraitua edo bijilantzia
 - 2.4. Arreta gaitasun moduan edo errekurtsuen multzoa
- G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

2.GAIA: HAUTAZKO ARRETA, ZATITUA ETA JARRAITUA

- 1. Hautazko arreta: paradigmak, fenomeno garrantzitsuak eta teoriak
 - 2. Arreta zatitua: paradigmak, fenomeno garrantzitsuak eta teoriak
 - 3. Arreta jarraitua: paradigmak, fenomeno garrantzitsuak eta teoriak
- G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

3.GAIA: BESTE ASPEKTU BATZUK ETA APLIKAZIOAK

- 1. Arreta eta informazioaren prozesamendua. Prozesu automatikoak eta kontrolatuak
 - 2. Arreta eta kontzientzia
 - 2.1. Ez adituriko estimuluen prozesamendua
 - 2.2. Arreta eta metakognizioa
- G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

IV.go GAI BLOKEA: MOTIBAZIOA

1. GAIA: MOTIBAZIOA

- 1. Sarrera
- 2. Motibazioa prozesua
- 3. Motibazioaren Alderdi Kognitiboak: planak, helburuak, disonantzia kognitiboa, autokontzeptua, igurikapenak, eta kausa egozpenak.

G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

2. GAIA: MOTIBAZIO ESTRINTSEKOA ETA INTRINTSEKOA

- 1. Motibazio estrintseko eta intrintsekoaren kontzeptuak
- 2. Ordainsariak, zigorrak, eta pizgarriak
- 3. Ekintza bat intrintsekoki motibagarria egiten duten faktoreak
- 3.1. Ekintzaren ezaugarriak
- 3.2. Ekintzaren inguruko autopertzeptzioa
- 4. Zein motako motibazio mota da hobeagoa?

4.1. Kanpoko ordainsarien eragina motibazio intrintsekoan: ordainsariaren balio ezkutua

4.2. Beste faktore negatibo batzuk motibazio estrintsekoaren orientazioan

G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

3. GAIA: BESTE MOTIBAZIO MOTAK ETA APLIKAZIOAK

- 1. Motibazio motak:
- 1.1. Motibazio biologikoak
- 1.2. Lorpen motibazioa
- 1.3. Afiliazio motibazioa
- 1.4. Botere motibazioa

G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

METODOLOGIA

Irakaskuntza modalitate teorikoan eskola magistralak emango dira irakaslearen partetik, eskola hauek jarraitzeko baldintza ezinbestekoa izango da ikasleak aurretik irakasleak gomendaturiko materiala landua izatea (liburu kapituluak, artikuluak, irakurgaiak, etb.).

Irakaskuntza modalitate praktikoan (Gelako praktikak, Tailerrak, Ordenagailu praktikak, eta Mintegiak) lan praktiko desberdinak egingo dira, hauen artean, adibidez, prozedura esperimentalak. Mota hauetako praktika bakoitzean ikasleek elkarlanean ekintza ezberdinak burutuko dituzte (eta modalitate ezberdinetan) prozedura esperimental berdin baten inguruan.

Praktika bakoitza Gelako Praktika batekin hasiko da (GP). Saio honetan irakasleak fenomeno edo prozedura esperimental baten logika azalduko du eta prozedura hau aurrera eramateko modua azalduko du, prozedura eta datu bilketaren aurkezpen praktiko bat eginez. Aldi berean, aurretik azalduko logika erabiliz datuok nola interpretatu azalduko du. Ondoren ikasleek praktikara eramateko suertatzen zaizkien zalantzak argituko dira.

Ondoren Tailer (TA) edo Ordenagailu Praktika (OP) saio batean, fenomeno edo prozedura esperimentalaren inguruan lanak egingo dituzte, eta batzuetan ikasleek bere kontu prozedura esperimentalaren aurrera eramango dute. Talde bakoitzeko kideak zereginak beraien artean banatuko dituzte. Bi partaidek "subjektu" papera beteko dute eta beste bik "esperimentatzaile" papera. Ondoren taldeko partaide guztiak jasotako datuekin eztabaida batean parte hartuko dute, eta hau talde txikian egin ondoren eztabaida sortuko da klaseko beste taldekideekin esperimenduaren logika, lorturiko datuak eta interpretazioaren inguruan.

Bukatzeko Mintegietan (M), ikasleak ebaluatuko dute eskola hauetan jasotako ezaguera test moduko banakako frogak

baten bitartez. Froga honetan eskola praktikoetan landutako prozedura esperimentalak azalduko dira kasu edo problema moduan, eta ikasleak praktikan jasotako ezaguerak kasu hauetara aplikatzeko gai izan beharko dute. G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira.

Ikasgelaz kanpoko irakaskuntza plana, irakasgaiaren irakaskuntza gidak egungo salbuespen baldintzetarako egokitzapen bat da (Covid-19 epidemia) eta Webgunean argitaratutako irakaskuntza gida ofiziala aldi baterako aldatu eta ordezkatzeko duen dokumentua da.

1. Eskola magistralak:

Erabiltzen ditugun materialak eGelan daude. Eskola magistralak birtualki talde bakoitzari dagokion orduan emango dira, Blackboard Collaborate (BBC) bidez, zuzenean edota eGelan klaseen grabaketak utziko dira ikasleen esku.

2. Jarduera praktikoak:

-Gelako praktikak: praktika guztien PPTk eGelan prest daude. Aldez aurretik, eGela bidez saio hauetan burutu beharreko zeregin praktikoaren inguruko jarraibideak emango dira. Talde praktiko bakoitzari esleitutako orduan irakaslea BBC edota posta elektronikoaren bidez konektatuko da egindako zereginen bateratze bat egiteko, eta zalantzak argitzeko.

-Seminario: gai bati buruzko zeregin birtual bat egingo da.

3. Tutoretzak: email bidez, zoom bidez edo BBC bidez burutuko dira, ahal den heinean arratsaldean.

4. Garrantzitsuak diren beste alderdi batzuk: eGelan ikasleen esku ipini da zeregin guztien asteroko kronograma bat, datekin, orduekin eta zereginen deskribapen txiki batekin.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	32	2	13		3		10		
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	48	3	19,5		4,5		15		

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 100

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Arreta, pertzeptzioa eta motibazioko azken azterketak zati bat praktikoa eta beste bat teorikoa izango ditu. Azterketa teorikoak notaren %60a, eta azterketa praktikoak notaren %40a balioko ditu.

IRAKASGAI HONETAN AZTERKETARA EZ AURKEZTEAREKIN NAHIKOA IZANGO DA KONBOKATORIARA ERRENUNTZIA EGITEKO.

Ikasgelaz kanpoko irakaskuntza planan, pertzeptzioa eta motibazioko azken azterketak zati bat praktikoa eta beste bat teorikoa izango ditu. Azterketa teorikoak notaren %60a, eta azterketa praktikoak notaren %40a balioko ditu.

- Azterketa teorikoa 15-20 galderakoa izango da, test moduko edo/eta galdera irekiak erantzun motzekin (3-5 lerro). Galdera hauek teorikoak, eguneroko bizitzara egokituak, kasu edota egoera esperimentalak izango dira ikerketa prozesuei buruzkoak.

- Azterketa praktikoa ebaluatzeko praktikan landutako edukiei buruzko 5-10 galdera test moduko edo/eta galdera irekiak erantzun motzekin (3-5 lerro). Online bidez emandako dozentziari hobeago egokitzeko talderen batean azterketa hau lan batekin ordezkatu da.

Azterketak, teorikoa eta praktikoa, egelan eskuragarri egongo dira azterketa ofizialeren egunean eta orduan, eta irakasleari azterketa hau osatuta bidaltzeko egun osoa izango duzue, gaueko 12etan jaso ez diren azterketak ez aurkeztuak bezala kontsideratuko dira.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak gomendaturiko materiala

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

BALLESTEROS, S. (2002). Psicología general II: Atención y percepción. Madrid: UNED.

COREN, S.; WARD, L.M. y ENNS, J.T. (2000). Sensación y percepción. México: McGraw-Hill.

GOLDSTEIN, E.B. (2006). Sensación y percepción. Madrid: Debate.

IRAOLA, J. Y SOROA, M. (2004). Giza Pertzepzioa eta Arreta: Praktiken bilduma. Bilbo: UPV-EHU. (<http://testubiltegia.ehu.es>).

MONSERRAT, J. (1998). La percepción visual. Madrid: Biblioteca Nueva.

MUNAR, E.; ROSELLÓ, J. y SÁNCHEZ-CABACO, A. (1999). Atención y percepción. Madrid: Alianza editorial.

SANCHEZ-CABACO, A. y ARANA, J.M. (1997). Manual de prácticas de percepción y atención. Salamanca: Amarú.

Gehiago sakontzeko bibliografia

BLANCO, M.J. (1996). Psicofísica. Madrid: Universitas.

GARCÍA SEVILLA, J. (1997). Psicología de la atención. Madrid: Síntesis.

IRAOLA, J. eta SOROA, M. (2004). Giza pertzepzioa eta arreta: praktiken bilduma. Bilbo: EHU. (<http://testubiltegia.ehu.es>).

KAHNEMAN, D. (1997). Atención y esfuerzo. Madrid: Biblioteca Nueva

MATLIN, M.W. eta FOLEY, H. (1996). Sensación y percepción. Mexico: Pentice Hall.

MONSERRAT, J. (1998). La percepción visual. Madrid: Biblioteca Nueva.

MUÑIZ, J. (1991). Introducción a los métodos psicofísicos. Barcelona: PPU.

ROSELLÓ, J. (1997). Psicología de la atención. Introducción al mecanismo atencional. Madrid: Pirámide.

Aldizkariak

Psicológica: <http://www.uv.es/revispsi/>

Psichotema: <http://www.psichotema.com/>

Interneteko helbide interesgarriak

www.sciencedirect.com

OHARRAK